# I ARABAKO FORU ALDUNDIA

## Administrazio Xedapenak

*Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak*

### EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

874

**4/2012 FORU DEKRETUA, otsailaren 7ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, onartu egiten dira Euskara, Kultura eta Kirol Sailak lehiaketa bidez emango dituen dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorrak.**

Urriaren 6ko Diputatuen Kontseiluaren 69/2009 Foru Dekretuaren bidez onartu egin ziren Euskara, Kultura eta Kirol Sailak lehiaketa bidez emango zituen dirulaguntzak arautuko zituzten oinarri orokorrak.

2011/2015 legegintzaldirako Arabako Foru Aldundiaren sailak zehazten dituen diputatu nagusiaren uztailaren 19ko 162/2011 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera, Euskara, Kultura eta Kirol Sailak honako funtzioak eta eskumen arloak ditu: Euskara politikak, Agiritegiak eta liburutegiak, Museoak, Zaharberritzeak, Kultur Etxea, Hezkuntza sustapena eta kultura hedapena, Argitalpenak, Historia eta arkitektura ondarea, Ondare arkitektonikoa, Kirolak, Gazteria, eta antolamendu juridikoan azaltzen diren gainerakoak.

Euskara, Kultura eta Kirol Sailak egoki irizten dio sailaren eskumen esparruan lehiaketa bidez emango diren dirulaguntzei aplikatuko zaizkien oinarri arautzaile orokorren dekretu berri bat onartzeari, nahiz eta, salbuespenez, arau espezifikoak ere egon daitezkeen.

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Idazkaritza Teknikoak egindako txostena aztertuta,

Horregatik, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATU DUT

Lehena. Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren eskumen esparruan lehiaketa bidez emango diren dirulaguntzei aplikatuko zaizkien oinarri arautzaile orokorrak, dekretu honen eranskinean ageri direnak, onartzea, nahiz eta, salbuespenez, arau espezifikoak ere egon daitezkeen.

Bigarrena. Euskara, Kultura eta Kirol Sailak lehiaketa bidez emango zituen dirulaguntzak arautuko zituzten oinarri orokorrak onartu zituen urriaren 6ko Diputatuen Kontseiluaren 69/2009 Foru Dekretua indargabetzea.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko otsailak 7.– Diputatu nagusia, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– Euskara, Kultura eta Kiroleko diputatua, ICIAR LAMARAIN CENITAGOYA.

**Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak Lehiaketa bidez emango dituen dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorrak**

**1.-Helburua eta aplikazio-eremua.**

Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak lehiaketa bidez emango dituen dirulaguntzak arautuko dituen oinarriak ezartzen ditu dekretu honek. Dirulaguntzok aurrekontu kredituen kontura ordainduko dira eta sailaren eskumen esparruko jarduerak izango dituzte xede.

Honako dirulaguntza ildoak aplikatuko dira:
- Museo elkarteentzako dirulaguntzak.
- Prestakuntza musikala udalerrietan.
- Udalen kultura ekimenak.

# DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA I

## Disposiciones Administrativas

*Decretos Forales del Consejo de Diputados*

### DEPARTAMENTO DE EUSKERA, CULTURA Y DEPORTE

874

**DECRETO FORAL 4/2012, del Consejo de Diputados de 7 de febrero, que aprueba las bases generales reguladoras de la concesión de subvenciones en régimen de concurrencia competitiva del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte.**

Mediante Decreto Foral 69/2009, del Consejo de Diputados de 6 de octubre, se aprobaron las bases generales reguladoras de la concesión de subvenciones en régimen de concurrencia competitiva del Departamento de Euskera, Cultura y Deportes.

Según lo dispuesto en el Decreto Foral del Diputado General 162/2011, de 19 de julio, por el que se determinan los Departamentos de la Diputación Foral de Álava para la legislatura 2011/2015, el Departamento de Euskera, Cultura y Deporte ejerce las siguientes funciones y áreas de competencia: Políticas de Euskera, Archivos y Bibliotecas, Museos, Restauraciones, Casa de Cultura, Promoción Educativa y Difusión Cultural, Publicaciones, Patrimonio Histórico-Artístico y Arquitectónico, Deportes, Juventud y las demás que señale el ordenamiento jurídico.

El Departamento de Euskera, Cultura y Deporte cree conveniente aprobar un nuevo Decreto de bases reguladoras generales aplicable a las subvenciones que se otorguen en régimen de concurrencia competitiva en el ámbito de las competencias del Departamento, si bien como excepción se prevé la posible existencia de regímenes específicos.

Visto el informe de la Secretaría Técnica del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte.

En su virtud, a propuesta de la Diputada de Euskera, Cultura y Deporte y previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada en el día de hoy,

DISPONGO

Primero. Aprobar las bases reguladoras generales aplicables a las subvenciones que se otorguen en régimen de concurrencia competitiva en el ámbito de las competencias del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte, que figura como Anexo a este Decreto, si bien como excepción se prevé la posible existencia de regímenes específicos.

Segundo. Derogar el Decreto Foral 69/2009, del Consejo de Diputados, de 6 de octubre, que aprobó las bases generales reguladoras de la concesión de subvenciones en régimen de concurrencia competitiva del Departamento de Euskera, Cultura y Deportes.

Vitoria-Gasteiz, 7 de febrero de 2012.– El diputado general, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– La diputada de Euskera, Cultura y Deporte, ICIAR LAMARAIN CENITAGOYA.

**Bases Generales Reguladoras de la concesión de Subvenciones en régimen de concurrencia competitiva del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Álava**

**1.- Objeto y ámbito de aplicación.**

El presente Decreto establece las bases reguladoras de las subvenciones que conceda, en régimen de concurrencia competitiva, el Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Álava, con cargo a los créditos presupuestarios, que tengan por objeto actividades dentro del ámbito competencial del Departamento.

Se aplicarán a las siguientes líneas subvencionables:
- Subvenciones Asociaciones Museos.
- Formación Musical en Municipios.
- Iniciativas culturales Ayuntamientos.

- Artisautza jardueraren sustapena.
- Elkarteen kultura ekimenak.
- Inbentarioko eraikinen eta hirigintza aldetik Kulturako Ondare Higiezin gisa katalogatutako eraikinen kontserbazioa eta eraberritzea.
- Baselizen kontserbazioa eta eraberritzea.
- Elementu txikien kontserbazioa eta eraberritzea.
- Kirola - Toki erakundeak.
- Kirol prestakuntza.
- Eskolako kirola.
- Jolaserako kirola – Irabazteko asmorik gabeko erakundeak.
- Klubentzako laguntzak.
- Minusbaliotasundun pertsonen elkarteentzako laguntzak.
- San Prudentzio eguneko jardueretarako laguntza.
- Hitzarmenak kirol federazioekin.
- Euskaren erabilera eta sentsibilizaziorako programak – Tokiko erakundeak.
- Euskararen laguntza teknikorako lankidetza – Arabako kuadrillak.
- Euskararen erabileraren sustapena - Elkarteak.

Ez zaie aplikatuko ondoren hauei:

a) Euskara, Kultura eta Kirol Sailak emandako sariak.

b) Arau berezien oinarri arautzaileen ebazpenek jasotako dirulaguntzak, lehiaketa bidez ematekoak.

Deialdiak hauexek jasoko ditu:

a.- Oinarri arautzaileak ezartzen dituen xedapena, hala badagokio, eta ALHAOko zein aletan argitaratu den, salbu eta oinarriak, bereziak izanik, deialdian bertan jasotzen badira.

b.- Dirulaguntza zein aurrekontu krediturekin ordainduko den eta kreditu erabilgarrien artean dirulaguntzen gehienezko kopurua zein den. Horrelakorik ezin bada zehaztu, dirulaguntzaren kopurua, gutxi gorabehera, zenbat den.

c.- Dirulaguntzaren gaia, baldintzak eta helburua.

d.- Dirulaguntza lehiaketa bidez emango dela.

e.- Dirulaguntza eskatzeko zein betekizun bete behar den eta betekizun horiek nola egiaztatu behar diren.

f.- Zein organok duten eskumena eskaera izapidetzeko eta ebazpena emateko.

g.- Eskaerak noiztik noiz arte aurkeztu behar diren.

h.- Ebazteko eta jakinarazteko epea.

i.- Eskaerarekin batera aurkeztu behar diren agiriak eta argibideak.

j.- Hala badagokio, eskaerak berriro egiteko aukera, Dirulaguntzen Lege Orokorraren 27. artikuluarekin bat etorriz.

k.- Ebazpenak administrazio bidearekin amaitzen duen eta, horrela ez bada, zein organotan jarri behar den gora jotzeko errekurtsoa.

l.- Eskaerak baloratzeko irizpideak. Objektibotasuna, berdintasuna, gardentasuna, publizitatea eta diskriminaziorik eza bermatu beharko dute irizpide horiek dirulaguntzak ematerakoan, eta egokia ote den dirulaguntzaren xede den helburua lortzeko jarduera izango da kontuan irizpideok haztatzerakoan, hauexek kontuan hartuta: aurkeztutako proiektuaren edo egindako jardueraren kalitatea, esperientzia edo ibilbidea, berrikuntza, bideragarritasun baldintzak edo, oro har, dirulaguntzaren helburua lortzeko egoki irizten den eta deialdian jasotzen den edozein alderdi.

m- Jakinarazteko edo argitaratzeko bidea, Herri Administrazioaren Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 16ko 30/1992 Legeko 59. artikuluari jarraiki.

**2.- Printzipio orokorrak.**

Printzipio hauek kontuan izanda kudeatuko dira dirulaguntzak:

- Publizitatea, gardentasuna, lehia, objektibitatea, berdintasuna eta diskriminaziorik eza.
- Eraginkortasuna, ezarritako helburuak betetzean.

- Fomento de la actividad artesana.
- Iniciativas culturales Asociaciones.
- Conservación y Restauración edificios inventariados, así como los catalogados urbanísticamente del Patrimonio Cultural Inmueble.
- Conservación y restauración ermitas.
- Conservación y restauración de elementos menores.
- Deporte Entes Locales.
- Formación deportiva.
- Deporte Escolar.
- Deporte Recreativo Instituciones sin ánimo de lucro.
- Ayudas a Clubes.
- Ayuda Asociaciones personas discapacitadas.
- Ayuda Actividades San Prudencio.
- Convenios con Federaciones Deportivas.
- Programas uso y sensibilización del euskera Entidades Locales.
- Cooperación asistencia técnica euskera Cuadrillas de Álava.
- Promoción uso del euskera Asociaciones.

No será de aplicación:

a) A los premios concedidos por el Departamento de Euskera, Cultura y Deporte.

b) A las subvenciones de concesión en régimen de concurrencia competitiva contempladas en resoluciones de bases reguladoras especiales.

La convocatoria contendrá:

a.- Indicación de la disposición que establezca, en su caso, las bases reguladoras y BOTHA en que está publicada, salvo que en atención a su especificidad éstas se incluyan en la propia convocatoria.

b.- Créditos presupuestarios a los que se imputa la subvención y cuantía total máxima de las subvenciones convocadas dentro de los créditos disponibles o, en su defecto, cuantía estimada de la subvención.

c.- Objeto, condiciones y finalidad de la concesión de subvención.

d.- Expresión de que la concesión se efectúa mediante un régimen de concurrencia competitiva.

e.- Requisitos para solicitar la subvención y forma de acreditarlos.

f.- Indicación de los órganos competentes para la instrucción y resolución del procedimiento.

g.- Plazo de presentación de solicitudes

h.- Plazo de resolución y notificación.

i.- Documentos e informaciones que deben acompañarse a la petición.

j.- En su caso, posibilidad de reformulación de solicitudes de conformidad con lo dispuesto en el artículo 27 de la Ley General de Subvenciones.

k.- Indicación de si la resolución pone fin a la vía administrativa y, en caso contrario, órgano ante el que se ha de interponerse recurso de alzada.

l.- Criterios de valoración de la solicitud. Estos criterios deberán garantizar la objetividad, igualdad, transparencia, publicidad y no discriminación en la concesión de las subvenciones, y en su ponderación se atenderá a la adecuación de la actividad proyectada al logro de la finalidad de la subvención, teniendo en cuenta aspectos como la calidad del proyecto presentado o actividad realizada, la experiencia o trayectoria, la innovación, las condiciones de viabilidad o, en general, cualquier extremo establecido en la convocatoria que se considere adecuado al objeto de la subvención.

m.- Medio de notificación o publicación, de conformidad, con lo previsto en el Art. 59 de la Ley 30/1992, de 16 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

**2.- Principios generales.**

Las subvenciones que se concedan se gestionarán con los siguientes principios:

- Publicidad, transparencia, concurrencia, objetividad, igualdad y no discriminación.
- Eficacia en el cumplimiento de los objetivos fijados.

- Eragingarritasuna, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko baliabideak esleitzean eta erabiltzean.

**3.- Onuradunen betekizun orokorrak.**

Dirulaguntza ematea justifikatzen duen egoeran dauden pertsona fisikoak edo juridikoak edo oinarri arautzaile hauetan eta deialdian ezarritako inguruabarrak betetzen dituztenak izango dira onuradunak. Halaber, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta deialdiak ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

Dirulaguntzak eskatzerakoan ondorengo baldintza hauek eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 11. eta 13. artikuluetan eta Dirulaguntzei eta Transferentziei buruzko 3/1997 Foru Arauak 5. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten erakundeek eta pertsonek eskatu ahal izango dute dirulaguntza:

- Pertsona juridikoak legez eratuta egotea.

- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik izatea.

Hauek ez dira onuraduntzat joko:

- Dirulaguntza ildo horren aurreko deialdietan emandako dirulaguntzen ondoriozko betebehar guztiak bete ez dituztenak.

- Arabako Foru Aldundiko edozein sailen eskumena izan edo sail horiek sustaturiko beste programa batzuen xede berak dituztenak.

- Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren aurrekontuetan dirulaguntza onuradunak dituztenak, eta horien bazkideak, baldin eta dirulaguntza izendun horren eta eskatzen den dirulaguntzaren xedea bera bada.

- Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren IV. tituluan arautzutako arau hausteren bat dela-eta zehatuak izan diren elkarte edo erakundeak, ez eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legean jasotakoren bat egiten dutenak ere.

Dirulaguntza lortzeko beharrezkoak diren baldintza bereziak eta baldintzok nola bete ezarriko du deialdiak.

Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatu behar dute onuradunek, salbu eta egiaztatzetik salbuetsita badaude 58/2004 Foru Dekretuak xedatutakoarekin bat etorriz, erakunde eskumendunek emandako egiaztagiriak aurkeztuta. Halaber, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2004 Lege Orokorrak 13.2 artikuluan jasotako debekuren batek eragiten ez diela egiaztatu behar dute. Zerga betebeharrei dagokienez, nahikoa izango da egunean dituela adieraztea, eta foru aldundiaren zeregina izango da hori egiaztatzea, Foru Ogasunari dagokion agiria eskatuta.

**4.- Eskaerak aurkezteko epea.**

1.-Eskaerak aurkezteko epea deialdian zehaztutakoa izango da eta ezingo da izan hamabost egun baino gutxiagokoa, deialdiak ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatuari zuzenduko zaizkio eskaerak, deialdiarekin batera argitaratutako ereduari lotuta, eta Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean (Probintzia plaza, 5. Vitoria-Gasteiz), aldundiaren beste erregistro batzuetan eta hitzartutako udaletako erregistro orokorretan aurkeztu ahal izango dira; edonola ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua) 38.4 artikuluan ezarritako bideak ere erabili ahal izango dira.

Eskaerek adierazi diren baldintzak betetzen ez badituzte, Euskara, Kultura eta Kirol Sailak interesdunei hamar egun emango dizkie akatsak konpondu edo aurkeztu beharreko agiriak aurkezteko. Hala egiten ez bada, eskabidea artxibatu eta eskaera bertan behera geratuko da.

2.- Nahitaez zehaztu behar da jakinarazpenetarako egoitza.

- Eficiencia en la asignación y utilización de los recursos del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte.

**3.- Requisitos generales de los beneficiarios.**

Tendrán la consideración de beneficiarios las personas físicas o jurídicas, que se encuentren en la situación que fundamente la concesión de subvención o en las que concurran las circunstancias previstas en estas bases reguladoras y en la convocatoria y que cumplan los requisitos establecidos en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y en la convocatoria.

Podrán solicitar subvención aquellas entidades y/o personas que a la fecha de solicitud reúnan, además de las condiciones previstas en los artículos 11 y 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y artículo 5 de la Norma Foral 3/1997, de Subvenciones y Transferencias, los siguientes requisitos:

- En caso de tratarse de personas jurídicas, deberán estar legalmente constituidas.

- Estar al corriente de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.

No tendrán la consideración de beneficiarios:

- Aquellos que no hayan cumplido todas las obligaciones derivadas de las subvenciones otorgadas en anteriores convocatorias de esa misma línea de ayudas.

- Aquellos entre cuyos objetivos se encuentren los que sean competencia o estén contemplados de alguna forma en otros programas impulsados por cualquier Departamento de la Diputación Foral de Álava.

- Aquellos que dispongan de subvenciones nominativas en el Presupuesto del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte, cuya finalidad coincida con el objeto de la subvención, así como los/as asociados/as a las mismas.

- Aquellos que hayan sido sancionados por las infracciones a que se refiere el Título IV de la Ley 38/2003 General de Subvenciones, de 17 de noviembre, al igual que las que incurran en los supuestos contemplados en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, del Parlamento Vasco, para la igualdad de Mujeres y Hombres.

La convocatoria determinará los requisitos específicos que sean necesarios para la obtención de subvención y la forma de acreditarlos.

Los beneficiarios de subvención deberán acreditar encontrarse al corriente de sus obligaciones fiscales y frente a la Seguridad Social, salvo que se encuentren eximidos de su acreditación de conformidad con lo dispuesto en el Decreto Foral 58/2004, mediante la aportación de los certificados justificativos de tales extremos expedidos por los organismos competentes, así como no incurrir en las prohibiciones contenidas en el artículo 13.2 de la Ley 38/2003 General de Subvenciones, de 17 de noviembre. Con respecto a las obligaciones tributarias, bastará la afirmación de tal situación, quedando a cargo de la Diputación la emisión del certificado a través de la Hacienda Foral.

**4.- Presentación y plazo de las solicitudes.**

1.- El plazo de presentación de solicitudes será el que se establezca en la convocatoria, no pudiendo ser inferior a quince días a contar desde el siguiente a la publicación de las respectivas convocatorias en el BOTHA.

Las solicitudes dirigidas a la Diputada de Euskera, Cultura y Deporte y ajustadas al modelo que se publique como Anexo a la convocatoria, podrán presentarse en el Registro General de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, nº 5, de Vitoria-Gasteiz, en otros Registros de la Diputación y en los Registros Generales de Ayuntamientos concertados, sin perjuicio de lo establecido en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificado por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

Si las solicitudes formuladas no reunieran los requisitos enunciados, el Departamento de Euskera, Cultura y Deporte requerirá a los interesados para que en un plazo de diez días subsanen la falta o acompañen los documentos preceptivos, procediéndose en caso contrario al archivo de la solicitud debiendo entenderse por desistida su petición.

2.- En todo caso, se hará constar expresamente el domicilio que se señale a efectos de notificaciones.

3.- Dirulaguntzak eskuratzeko eskaerak aurkezteak oinarri hauetan eta kasuan kasuko oinarri espezifikoetan ezarritakoa formalki eta berariaz onartzen dela esan nahi du.

**5.- Deialdiaren ebazpena.**

1.- Dirulaguntza izapidetzeaz arduratuko den Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko unitate organikoak izango du prozeduraren instrukziorako eskumena.

2.- Eskaerak balorazio batzorde batek aztertuko ditu. Balorazio batzorde horren lehendakaria Euskara, Kultura eta Kirol zuzendaria izango da eta honako hauek mahaikide: dirulaguntza kudeatzeko ardura duen unitate organikoaren burua, eta Euskara, Kultura eta Kirol Zuzendaritzari atxikitako bi teknikari. Euskara, Kultura eta Kirol Idazkaritza Teknikoaren burua izango da idazkari, eta horrek hitza izango du, baina ez botorik.

Euskara, Kultura eta Kirol Sailak, egoki irizten dion kasuetan, aurkeztutako agiriei buruzko datuak eta azalpenak eskatzeko ahalmena izango du. Espedientea atzeratu, eta are artxibatu egin daiteke, baldin eta datu nahiz azalpen horiek ez badira bideratzen Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak, 4/1999 Legeak aldatutakoak, ezarritako epeetan.

Balorazio batzordeak txostena egingo du, deialdian ezarritako irizpideen arabera aurkeztutako eskaerak erkatu ondoren, eta bertan, egindako ebaluazioaren emaitza eta eskaeren zerrenda zehaztuko da, hala badagokio.

Organo instruktoreak behin-behineko ebazpenaren proposamena egingo du behar bezala arrazoituta, behin espedientea eta balorazio batzordearen txostena aztertu ondoren.

Entzunaldiaren izapidea egin beharrik ez da izango baldin eta prozeduran interesdunak aurkeztutako gertaerak eta alegazioak baino ez badira agertzen eta horiek baino ez badira kontuan hartzen ebazpena emateko; horrelakoetan, ebazpena behin betikoa izango da.

3.- Organo eskumendunak eman beharreko ebazpena emango du, organo instruktoreak proposatuta, sei hilabeteko epean gehienez ere, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epealdi horretan berariazko ebazpenik ematen ez bada, interesdunek ezetsitzat jo ahal izango dute eskaera.

4.- Dirulaguntza jasoko duten eskatzaileez eta gainerako eskaera guztien esanbidezko ezezpenaz gain, eskaera guztien zerrenda jaso ahal izango du dirulaguntza emateko ebazpenak; hau da, oinarri arautzaileek onuradun izateko ezarritako baldintza administratibo eta teknikoak bete arren, deialdiak jasotako kredituaren gehienezko kopurua gainditzeagatik onartu ez diren eskaera guztien zerrenda jaso ahal izango du dirulaguntza emateko ebazpenak, eskaera bakoitzari zenbat puntu eman zaion adierazita, deialdiak jasotako balorazio irizpideen arabera.

Kasu horretan, onuradunen batek dirulaguntzari uko egiten badio, puntuazio hurrenkerako hurrengo eskatzaile edo eskatzaileei ematea dirulaguntza erabakiko du dirulaguntza ematen duen organoak, beste deialdi baten premiarik gabe, baldin eta onuradunak uko egiteagatik nahikoa kreditu eragin bada, ezetsitako eskaeraren bati, behintzat, aurre egiteko.

5.- Baiezkoa bada, ebazpenean datu hauek agertuko dira: dirulaguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua, laguntzaren xede den programa edo jarduera, aurkeztu beharreko agiriak eta bete beharreko baldintzak. Gainera, onuradunei jakinaraziko zaie, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 59. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak finkatutako testua).

6.- Laguntza eman ala ukatu zaien jakinaraziko zaie eskatzaileei, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 59. artikuluan jasotzen diren moduei jarraiki.

7.- Ebazpenak administrazio bidea agortzen du, beraz, Administrazioarekiko Auzibideetarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 9.c) artikuluak xedatutakoaren ildotik, haren

3.- La presentación de solicitudes para optar a las subvenciones comporta la aceptación expresa y formal de lo establecido en estas bases y en las específicas de la correspondiente convocatoria.

**5.- Resolución ,de la convocatoria.**

1.- Será órgano competente para la instrucción del procedimiento, la unidad orgánica del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Álava que tramite la subvención.

2.- Las solicitudes serán examinadas por una Comisión de Valoración presidida por el/la directora/a de Euskera, Cultura y Deporte de la que formarán parte, como vocales, el/la Jefe/a de la unidad orgánica que tramite la subvención y dos técnicos/as adscritos/as a la Dirección de Euskera, Cultura y Deporte actuando como secretaria, con voz pero sin voto, la Jefa de la Secretaría Técnica de Euskera, Cultura y Deporte.

El Departamento de Euskera, Cultura y Deporte en aquellos casos que lo estime oportuno, podrá solicitar datos o pedir aclaraciones sobre las documentaciones presentadas que, caso de no evacuarse en los plazos que establece la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero, podrían retrasar el expediente e incluso dar lugar al archivo del mismo.

La Comisión de Valoración, tras la comparación de las solicitudes presentadas de acuerdo con los criterios fijados en la convocatoria, emitirá un informe en el que se concrete el resultado de su evaluación y una prelación de las mismas, en su caso.

El órgano instructor, a la vista del expediente y del informe de la Comisión de Valoración, efectuará la propuesta de resolución provisional debidamente motivada.

Se podrá prescindir del trámite de audiencia cuando no figuren en el procedimiento ni sean tenidos en cuenta otros hechos ni otras alegaciones que las aducidas por los interesados, en cuyo caso, la propuesta de resolución formulada tendrá el carácter de definitiva.

3.- El órgano competente, a propuesta del órgano instructor, dictará la resolución que proceda, en el plazo máximo de seis meses desde la publicación de la convocatoria en el BOTHA. Transcurrido el plazo máximo sin que haya recaído resolución expresa, los interesados podrán entender desestimada la solicitud.

4.- La resolución de concesión además de contener los solicitantes a los que se conceda la subvención, y la desestimación expresa de las restantes solicitudes, podrá incluir una relación ordenada de todas las solicitudes que, cumpliendo con las condiciones administrativas y técnicas establecidas en las bases reguladoras para adquirir la condición de beneficiario, no hayan sido estimadas por rebasarse la cuantía máxima del crédito fijado en la convocatoria, con indicación de la puntuación otorgada a cada una de ellas en función de los criterios de valoración previstos en la misma.

En este supuesto, si se renunciase a la subvención por alguno de los beneficiarios, el órgano concedente acordará, sin necesidad de una nueva convocatoria, la concesión de la subvención al solicitante o solicitantes siguientes a aquel en orden de su puntuación, siempre y cuando con la renuncia por parte de alguno de los beneficiarios, se haya liberado crédito suficiente para atender al menos una de las solicitudes denegadas.

5.- En la resolución, caso de ser positiva, se hará constar cuantía de la subvención, forma de pago, programa o actividad afectada, documentación a presentar y condiciones en que se otorga, notificándose a las beneficiarias, conforme a lo previsto en el art. 59 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

6.- La resolución de concesión o denegación de la subvención será notificada a los solicitantes según las formas previstas en el artículo 59 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

7.- La resolución pondrá fin a la vía administrativa y contra la misma podrá interponerse recurso contencioso administrativo ante los Juzgados Centrales de lo Contencioso-Administrativo de Vitoria-

aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke administrazio auzietarako epaitegi nagusietan. Horretarako bi hilabete izango dira ebazpena jakinarazten denetik aurrera.

Zuzenean aurkatu ezean, berraztertzeko errekurtsoa hilabetean aurkeztu ahalko zaio ebazpena eman zuen organo berari, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua) 116. eta 117. artikuluetan xedatutakoaren ildotik.

**6.- Dirulaguntzaren zenbatekoa edo dirulaguntza zehazteko irizpideak.**

1.- Deialdiek dirulaguntzaren banakako zenbatekoa jasoko dute, dirulaguntzaren xedea kontuan izanda.

2.- Ez badago modurik kopuruak zehazteko, deialdiak ezarriko du zein irizpide objektiboren arabera zehaztu, eta, hala badagokio, irizpideak nola haztatu ere ezarriko du dirulaguntzaren xedea kontuan izanda. Besteak beste, aurrekonturik dagoen kontuan hartu beharko da.

3.- Eskaeren zenbatekoaren bolumena dirulaguntzarako gorde den gehienezko zenbatekoa baino nabarmen handiagoa bada, deialdiak onuradunen artean hainbanatzeko aukera emango du, salbuespenez eta ezarritako betekizunetan gorabeherarik eragiten ez bada, onuradunek eskatutakoaren eta dirulaguntzarako gehienezko kopuruaren arteko aldearen portzentajean.

4.- Ez dute dirulaguntzarik jasoko, kasuan kasuko deialdietan ezarritakoaren arabera baloratuta, 150,00 euro egiten ez duten eskaerak.

**7.- Dirulaguntzak zein gasturi eragiten dion eta dirulaguntzen bateragarritasuna.**

1.- Oinarri hauek araututako dirulaguntzak egindako gastuetarako izango dira, baldin eta dirulaguntzaren xede den proiektua garatzeko egin badira, eta diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak ezarriko dira deialdi bakoitzean.

Diruz lagun daitekeen gastutzat hartuko da argi eta garbi diruz lagundutako jarduerearen izaerari erantzuten diona, guztiz beharrezkoa dena eta dirulaguntzen oinarri arautzaileetan ezarritako epean egiten dena.

2.- Ondoko kasuak inola ere ezingo dira diruz lagundu:

a) Bankuko kontuen interes zordunak.

b) Interes, errekargu eta zigor administratibo nahiz penalak.

c) Prozedura judizialetako gastuak.

Zergak diruz lagun daitezkeen gastuak dira, baldin eta onuradunak diruz ordaintzen baditu.

Zeharkako zergak ez dira inola ere diruz lagun daitezkeen gastutzat joko, berreskuratzeko edo konpentsatzeko modukoak direnean, ezta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere.

3.- Dirulaguntzaren xedea kontuan hartuta, deialdi bakoitzeko oinarri arautzaileek dirulaguntzen onuradunek egindako zeharkako gastuen portzentaje jakin bat ezarri ahalko dute eta berau diruz lagundu daitekeela ulertuko da, justifikatu behar izanik gabe, betiere kostu horiek jarduera benetan gauzatzen den aldiari badagozkio.

4.- Dirulaguntzaren zenbatekoa ezin izango da, inola ere, onuradunaren jarduerearen kostua baino gehiago izan, beste laguntza batzuekin zein administrazio publiko batzuek edo nazioko zein nazioarteko erakunde pribatu batzuek emandako laguntzekin edo bestelako diru sarrerekin batera.

5.- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 31.3 artikuluan ezarritakoa betez, diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoak gainditu egiten baditu Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legean kontratu txikirako ezarritako kopuruak, onuradunak hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu gutxienez, obrarako konpromisoa hartu, zerbitzua eman edo ondasuna entregatu baino lehen, salbu eta bere ezaugarri berezien ondorioz merkatuan ez badago erakunde kopuru nahikorik hori egin, eman edo hornitzeko, edo gastua dirulaguntzaren aurretik egin bada.

Gasteiz conforme a lo previsto en el artículo 9.c) de la Ley 29/1998 de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativo en el plazo de dos meses desde su notificación.

En el caso de no impugnarla directamente, podrá ser recurrida potestativamente en reposición ante el mismo órgano que la dictó en el plazo de un mes, de acuerdo con lo dispuesto en los artículos 116 y 117 de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, en la redacción dada por la Ley 4/1999 de 13 de enero.

**6.- Cuantía de subvención o criterios para su determinación.**

1.- Las convocatorias, en atención, al objeto de la subvención, contendrán la cuantía individualizada de la subvención.

2.- Cuando no resultara posible su determinación, la convocatoria establecerá los criterios objetivos para su concreción y, en su caso, la ponderación de los mismos adecuándose al objeto de la subvención y entre ellos se incluirá necesariamente la consideración de las disponibilidades presupuestarias.

3.- Excepcionalmente, cuando el volumen del importe de solicitudes se prevea que pudiera ser significativamente superior al importe global máximo destinado a la subvención y no supusiera ninguna alteración en los requisitos fijados, las convocatorias podrán admitir la posibilidad del prorrateo entre los beneficiarios en el porcentaje que resultare de exceso entre lo solicitado y el importe global máximo destinado a la subvención.

4.- No serán acreedoras de subvención las peticiones que una vez valoradas conforme a lo establecido en las bases de la correspondiente convocatoria no alcancen la cuantía de 150,00 euros.

**7.- Gastos a que afecta la subvención y compatibilidad.**

